

noaua

"ESPAZIO IREKIAK, BALIOANITZAK, EROSOAK ETA GOXOAK SORTU DITUGU AGERIALDEN"


Nerea Erauntzetamurgilek azaldu digunez, Udarregi ikastolaren batzar nagusia bertan egingo da azaroaren 16an / 15



ARGAZKIA: NOAUA



Gari kantaria eta bere taldea Sutegin arituko dira ostiral honetan / 07



Larunbat iluntzean, 'Kanpora sartzan' antzezlanaz gozatzeko aukera / 07



Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko garaia da / 19



Usurbilgo Kulturgunea larunbatean batuko da Potxoenean / 22



Bali

IRTEERA 2024ko apirila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!



943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



KONTZERTUA **Gari&Maldanbera**

azaroak 10, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA **Kanpora sartzen**

azaroak 11, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi



KONTAKIZUNA ETA TERTULIA **Usurbil borobil erriean dabil**

azaroak 12, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



Sarrerak: aldeztu aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan.

NOAUA/KO KULTURALDIA 2023 USURBIL AZAROA



Ageriko kalteak, egunotako haize bolada bortitzengatik



Atxegalden, haizeak zuhaitz bat bota eta hiru auto harrapatu zituen azpian.



Agerialdeko frontoi eraberrituko bi xafla bota zituen haizeak iragan astean.

Udazkeneko lehen denboralea izan dugu egunotan. Haize bolada bortitzek ageriko kalteak eragin dituzte. Le-

rootan aipatuko ditugunak bi adibide baino ez dira.

Bideetara eroritako hosto eta zuhaitz adaxkekin batera,

Atxegalden Udarregi ikastolaren patio pareko belardiko zuhaitz bat bota zuen haizeak. Hiru ibilgailu harrapatu zi-

tuen azpian. Handik hurbil, Agerialdeko frontoi eraberrituko bi xafla bota zituen haizeak.

1972an jaiotako bazkaria azaroaren 18an ospatuko da

Azaroaren 18a, larunbata, 14:30ean bilduko dira bazkaritarako Urnietako Oianumen. Izen-emateko azaroaren 16ra arteko epea finkatu dute. Rural Kutxako kontu zenbaki honetan 50 euroko ekarpena egin eta nork bere izen abizenak adierazi: ES 15 3008 0259 1750 4249 4822.

1973. urtean jaiotako kinto bazkaria

"1973an jaio ginenok aurten 50 urte borobil beteko ditugunez, bazkari batez ospatzea erabaki dugu. Azaroaren 25ean Atxega jauregian elkartzekotan gara eta zu ere bertaratzea gustatuko litzaiguke. Izena emateko azken eguna: azaroak 15. Izaro (658 744 904) edo Joseba (661 122 568)".

1959an jaiotako bazkaria, azaroaren 18an

1959an jaiotakoek ere iragarri dute beren ospakizun-eguna: azaroaren 18a. Bazkalarretik ordea, argazkia aterako dute Bordatxo tabernaren atarian, eguerdiko 13:00ean.

Topaketa honetan izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 659 139 073.

1945ekoak Artzabalen elkartuko dira azaroaren 19an

1945. urteko kinto bazkaria antolatuko duten lagunek ohar hau bidali digute: "1945. urtean jaiotako bazkaria antolatuko dugu azaroaren 19an igandea, Artzabalgo jatetxean. Izen emateko 645711033 telefonora deitu behar da. Izen emateko azken eguna azaroaren 14a izango da".

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

Azalaldatzen (2)

Saxofoi-jolea imajinatzen dut espaloi gainean, farola ondoan, eta argi laranja horrek blaituta, blues notak aieratzen ditu. Zerua negarrez dago hor ere, eta nik maite dut euria. Ez iezadazue eguraldi onaz hitz egin, zeruaren urdinaz, ez! Utikan hori dena! Nik euria nahi dut, ekaitz basatia goitik beheraino mela-mela egindauzten duten horietakoa. Inoizko maitasunik umelena izan nuen ekaitz egun batez. Orduko pasioa oroitzean, balkoitik, madarikazioka hasten natzaio urdinari, eta eskatzen diot Arnaitzi bidal dezala behingoz iragarpenek iragarri ezinezko deskalabrua.

Zer eginik gabe, ardo botila amaitzekotan nintzen lehen trumoi hots beldurgarriek dardarka jarri zituztenean horma guztiak. Naturaren edertasuna hura, ahazten zaigu maiz errutinaren zurrunbiloak irensten baikaitu, eta ezusteak atea jotzen duenean ez diogu zabaltzen. Beharbada bat-bateko horrek liluratu ninduelako ohartu nintzen nire ateari danbadaka zebilela norbait. Bizilaguna zen garrasika, zioen: "Ireki nazazu, mesedez, erregutzen dizut! Bakarrik nago, eta ez dakit jasango ote dudan barne-ikara hau". Antza, senarrak alde egin zuen, eta haren akatsak zerrendatzeko tarterik hartu ez arren, garrantzitsuena azaldu zidan; alegia, horrelako gauetan etxea utzi beharrean zegoela tximistorratzak saltzen zituen eta.

Udako ekaitz gauak gorroto dituenik izango da. Niri, ordea, plazerez blaitzen naute, eta pertsonaia historikoak eskertzeko ohiturarik ez badut ere, Benjamin Franklini eskerrak eman dizkiot ordutik bere asmakizunagatik. Bata zarpail bat, auskalo zeren aldeko edo kontrako kotoizko kamiseta, galtzontzillo zahar batzuk eta belauen erdiraino jasotako galtzerdi zuriekun nengoen; baina beso artean babesa eskaini nioenean, ez zuen bitan pentsatu bertara jauzi egiteko. Hortik aurrerakoak maitasunak egin zituela esatea dut atsegin. Aitortu behar dut senarrak ere izan zuela berea, akats batzuk ezin dira sekula egin. Posible ote norberaren etxean tximistorratzik ez jartzea?

Ez dut luzaroan ahaztuko gau hartakoa, saxofoi-musika oraindik entzuten dut belarri er-tzean, eta oroitzen dut ordu batzuetara tenpesta baretu zela. Joan behar zela esanda eskusatu zen, baina ez hurrengo erauntsirako hitzordua jarri gabe. "Nire senarra laster itzuliko da, eta ez banago etxean, ziur hoztuko dela. Beraz, banoakio lehortzera".

"ZER DIREN GAUZAK! ORDUTIK BALKOIAN EGITEN DUT BIZITZA, ARRETA OSOA ESKAINTZEN DIET ZERUAN AGERTUTAKO ZIRRU, KUMULU ETA ESTRATU GUZTIEI"

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau, meteorologoarena.

Zer diren gauzak! Ordutik balkoian egiten dut bizitza, arreta osoa eskaintzen diet zeruan agertutako zirru, kumulu eta estratu guztiei. Katedratikoa naiteke gai horietan, eta hodei beltz bat ikusten badut, odola borborka hasten zait, eremu erogenoetan, batik bat. Jakitun naiz, halere, ez dela ordurorik itzuliko, ez, ordukoa berezia izan zen. Itxaropena galtzen omen da azkena, eta klima-aldaketa tarteko, auskalo!

Senarraren zorte ekonomikoa izan zen ekua-ziora gehitu ez nuen bariazio bakarra. Izan ere, nork espero zezakeen milioidun egingo zela metalezko makilatxoak saltzen? Gure auzoteria ez gustatzen, eta beste batera migratu zuten, urrun, urrunegi, herrialde mozolo batera; eta bertan euririk egiten badu, bizilagunen baten haurrak balkoitik pixa egiten duelako izango da.

Agian ere nire kontaktuzina Sahara hartara ailegatzea. Esan diezaiola ni beti izango nauela leial, bihotzean daramadala. Esan diezaiola, simunakerrealitate lehorrez kolpatu arren, egunen batean tenpesta ikaragarri batek elkartuko gaituela, eta haren ostean, ez dela barerik izango.

Txabola kanpoan euria nabari dut orain. Baita oinatzak ere.

650 Usurbil Bizi otarrak

Azaroaren 10ean amaituko da 650 Usurbil Bizi otarrerako produktuak eskaini nahi dituztenentzako izen-ematea. Kultura eta sormen industrietakoak, lehen sektorekoak edota ostalaritza nahiz elikadurari lotutakoak aurkez daitezke deialdi honetara, eta Usurbilen edo usurbildarrek ekoitziak izan beharko dute. Izena gertuago.eus atarian eman beharko da.

GuraSOSen "Neure gain" bonuak eskuragarri

GuraSOS herri elkartaren bide judizialaren jarraikotasuna bermatzeko epaitegiak eskatutako fidantzari aurre egin beharrean da aipatu bilgunea. "Baina, nola diren gauzak, Asensio GuraSOSen kontuak enbargatuta ditu beste auzi batzuetako kostak ordaindu ez dituelako". Horregatik jarri ditu eskuragarri Aitzaga tabernan eta NOAUA! Kultur Elkartean "Nire Gain" bonuak, aipatu fidantza horri eta gastu juridikoei aurre egiteko.

Barreterapia Santuenean

Azaroaren 25ean, 10:30-12:30 artean, Santueneko Gure Txikiak ludotekan. Izena aurrez eman behar da, santueneaguretxikiak@gmail.com helbidean. Sarrera 6 euro. Herrikideek izango dute lehentasuna.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugul!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, raziokak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiarenean 6, Usurbil.

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

Arrautzak Udarregin ipiniak zeuden kartel batzuen aurka

Euskalgintzaren Kontseiluak Bilbon deitu zuen manifestazioa iragartzeko kartelak kaltetu zituzten urriaren 31n. Irakasle talde batek salaketa idatzi bat igorri du NOAUA!ra.

Usurbilen ere, Gau Beltza ospatu zen urriaren 31n. Biharamunean, azaroaren lehenan, jai eguna zuten Udarregi ikastolan. Azaroaren 2an, lanera itzuli zirenean, ikasleek zein irakasleek ekin-tza desatsegin batekin egin zuten topo. Ezezagunek arrautzak bota zituzten Euskalgintzaren Kontseiluak Bilbon deitu zuen manifestazioa iragartzeko karteletara. Irakasle talde batek salaketa-ohar bat bidali du NOAUA aldizkariko erredakziora.



"Arrautza botaka ibiltzeko balentria izan duzun horrek garbitzera etortzeko balentria izan dezazula".

"Oldarraldia Udarregira iritsi da"

Gau beltza edo Halloween festak sorpresa utzi digu Udarregin. Ostegun goizean, egun bateko atsedenen ondoren itzultzean, arrautzak bota dizkigutela ikusi dugu. Festa "yankiaren" parte dela bada-kigu eta halakoak umorez hartu beharko ditugula, zabaltzera doan ohitura dela ikusten baitugu. Baina ez zaigu inongo kasualitatea iruditu bota dituzten arrautza guztiak nora zuzenduta joan diren... datorren larunbateko manifestaldiko kartelaren gainera joan dira.

Ez zaigu kasualitatea iruditu arrautzak nora bideratuta joan diren. Triste da gure herrikideek (agian gure ikas-

leek edo ikasle izanek) euskararekiko eta honen babesarekiko halako ikuspegia izatea. Beraz, mezu hau zurretzat: Euskarak ez dizu zuri kalterik eragingo, ez dago zure aurka!

Herrian euskararekiko hartzen ari den jarrerak kezkatzen gaitu, ez arrautzak botatzeak. Baina barrabaskeria horrek beste pertsona bati emango dion lanaren berri izanda, garbitzen laguntzera etortzeko gonbita luzatzen dizugu. Arrautza botaka ibiltzeko balentria izan duzun horrek garbitzera etortzeko balentria izan dezazula.

Udarregi ikastolako irakasle talde bat



Bertso-afari eta txapelketen Kultur Asteburua izan dute Txokoalden.

Asteburu pasa Txokoargin

Txokoaldeko auzo elkarteak ekintza hauen bueltako asteburu pasa iragarri du:

Azaroak 18, larunbata

- Txokoargi elkarteak:
- 17:00 Asier Kidam magoaren emanaldia.
- Zehaztasunak: "Aspertuta zaudela zeure koinatua brokolia goratzen entzuteaz? Faktura eta prezioen igoerak itotzen zaituela? Etxeko txiekiekin egiteko ideia dibertigarriak agortu zaizkizula? Hartu ezazu atsedena eta zatoz "Smile" ikustera. Ikuskizunak irau-

ten dituen 60 minutuetan zehar zeure arazoak desagertu eta haien lekuan sekulako irribarrea agertuko da".

- 19:30 Zallek taldearen kontzertua.

Azaroak 19, igandea

- Txokoargi elkarteak:
- 10:00-12:00 Ogia egiteko ikastaroa.
- Zehaztasunak: "Idoia era-kutsiko digu etxean ogia egiten".
- Izen-ematea: aurrez, 17:00-19:00 artean 619 591 849 telefono zenbakian.
- Prezioa: 10 euro.

'Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi' antzezlan Sutegin

Azaroaren 28rako iragarri duen '80 Amandre' helduentzako ipuin kontaketa aurretik, Kamikaz Kolektiboaren 'Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi' antzezlan ekarriko du Parekidetasun Sailak Sute-gira. Azaroaren 19an, 19:00etan. Gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dira usurbilkultura. eus plataforman.



Azaroaren 19an, Sutegin.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patxi
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

"Herrian gertatzen denaz jabetzeko aukera eskaintzen digu NOAUAK"

AINHOA URIBEETXEBERRIA NOAUA!KO BAZKIDEA

Ainhoa Uribeetxeberrria duela 16 urte etorri zen Usurbilera bizitzera Elgoibar utzita. Familia izan du herrian eta integratuta dago bertan. NOAUAKo bazkide ere bada duela hainbat urtetik. Herrian nola integratu zen eta gure hedabidearekin duen loturaz galdetu diogu elgoibartarrari.

NOAUA! Noiztik zara NOAUAKo bazkide eta zergatik egin zinen bazkide? Zein arrazoiengatik eman zenuen bazkide egiteko urratsa?

Beti izan dugu euskara elkarteak laguntzeko nahia, eta gaur egun euskal kulturari laguntza ematea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Geroz eta euskal informazio gehiago dagoen arren, gaztelerak, tamalez, indar gehiago dauka eta gure ale txiki honek beste askorenak bezala laguntza handia eman dezakeelakoan nago.

Etxean zu bazkide zara eta Imanol ere bai. Biok aprobetxatzen dituzue abantailak? Zer da bazkide izatetik balio gehien ematen diozuen?

Gehien aprobetxatzen ditugun abantailak kultur ekintzetakoak izan dira.

Izatez elgoibartarra zaitugu, baina urteak daramatzazu Usurbilen. Herriko martxa eta ohiturak ezagutzen dituzu jada? Nola lortu zenuen herritarrekin integratzea? NOAUAK zerbaitetan lagundu dizu zentzu horretan? Duela 16 urte etorri nintzen Usurbilera eta hasieran herrira egokitzea pixkat kosta zitzaidan arren, guztiz egokituta nagoela pentsatzen dut. Imanolen kuadrillako lagunekin hasi nintzen herrian irtetzen, eta geroago gure seme-alaben lagun gurasoak



Ainhoa Uribeetxeberrria NOAUA! Kultur Elkartearen bazkide da. "Beti izan dugu euskara elkarteak laguntzeko nahia", azaldu digu. NOAUA

ezagutzuz joan naiz nire harreman-sareak zabaltzen.

Herri txiki eta lasaia da; haurrak hazteko erraza eta eroso.

"NOAUA!KO SARE SOZIALETAN JARRAITZEN DUT EGUNEROKOTASUNA"

"ZIRIMARAKO HEZITZAILEEN LANA NABARMENDU NAHIKO NUKE"

NOAUA bezalako elkarteak herrian gertatzen diren gauzez jabetzeko aukeraz gain, herriko jendea ezagutzeko ere balio izan dit, baita herrian antolatzen diren ekintza eta jardueretan parte hartzeko ere.

NOAUA astekariaren itxura eraberritu dugu. Eta sarean ere bagabiltza. Zuk non irakurtzen duzu NOAUA? Paperean edo pantailan?

Astero egoten gara NOAUA jasotzeko zain. Sare sozialetan jarraitzen dut egunerokotasuna, baina paperean irakurteza gustatzen zait.

Aldizkariari zein web orriari dagokionez, zein da gehien gustatzen zaizun atala?

Atal guztiak interesgarriak iruditzen zaizkit, zaila da bat bakarra aukeratzea. Baina iritzi artikulua ditut gustuko, "Herorrek esan" atalekoak. Hausnarketarako aukera ematen dutelako, zer pentsatua sortzen dizuten horietakoak.

Sare sozialei dagokionez, zein da gehien erabiltzen duzuna edo gustukoena? Zerbait sumatzen duzu faltan edo zerbait soberan?

Instagramen mugitzen naiz gehien beste kontu asko jarraitzen ditudalako bertatik eta momentu honetan erosoan egiten zaidana da. Facebook geroz eta gutxiago erabiltzen dudana arren, hortik ere jarraitzen dut NOAUA. Klik batean informazio guztia eskura daukazu, hori da sareki ematen duten erraztasuna.

NOAUA hedabide bat da baina kultur elkarte gisa ere ekitaldi asko antolatzen ditu. Kultur zikloak, film proiektzioak, Inauteri Jaia, San Tomas azoka... Horrelakoetan parte hartzeko ohiturarik ba al duzu?

Astean zehar nahiko lanpetuta egoten gara etxean, baina asteburuetan herrian geldituz gero, antolatzen diren ekitaldietara joatera animatzen gara ahal den neurrian.

Bizi asko duen herria dela iruditzen zait, Elgoibarko familiak beti esaten du: "herri honetan beti dago zerbait", eta hala da. Herriak bizi handia du eta hori eskertzekoa da.

Aisialdian ere, NOAUAk gero eta ardura gehiago ditu. Udajolas eta Zirimara egitasmoak koordinatzen ditugu. Noizbait baliatu dituzu zerbitzuok seme-alabekin? Eta, zein inpresio hartu zenuen?

Uztailean herritik kanpo egoten gara, baina kurtsuan zehar alaba nagusienak Zirimara egitasmoan parte hartzen du. Oso gustura dabil eta guk ere egitasmo horretan sinesten dugu, gure garaian ez zegoen halako egitasmo "alternatiborik". Gaur egun dauden hezitzaileen papera azpimarratu nahiko nuke, gure haurren hezkuntzan eragin handia dutenak direla iruditzen zaigu.

Zure jarduera profesionalerako, garrantzitsuak al dira NOAUAREN gisako hedabideak?

Nire jarduera profesionala euskararekin lotuta dago eta beti laguntzen dute horrelako hedabideek lan arlo honetan, informazioa aurkitzeko edota gizartean gertatzen ari den gauza askok gure lanean eragina izan dezakeelako.

Zertan ari zara une honetan? Zein da zure jarduera?

Haur Eskola bateko hezitzaile eta arduradunetako bat naiz. Haurren mundua izugarri gustatzen zait eta horretan dihardut.

Epe luzera zeure burua lanpostu berean ikusten duzu?

Momentuz bai, nork daki etorkizun batean gauzak aldatuko ote diren... Baina gustora nago hezkuntza munduan murgilduta. Betidanik izan dut argi haurrekin lotutako lan bat izan nahi nuela, eta horrela da.



Garik 30 urte bete ditu bakarlarri gisa. Maldanbera taldearekin batera igoko da Sutegiko oholtza gainera.

NOAUA! Kulturaldia azken txanpan murgildu da

Ostiral honetan Gari kantaria arituko da Sutegin. Antzezlan batek eta solasaldi batek osatuko dute asteburuko eskaintza.

Azaroak 10, ostirala
Gari & Maldanbera kontzertuan

Garik, Maldanbera taldearekin batera, bere bakarkako ibilbideko azken 30 urteetako abesti ezagunenak errepasatuko ditu.

- 22:00etan, Sutegin.
- Sarrerak: aldeztatik 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. NOAUA!ko bazkideek 8 euro-

tan eskuratu ahaliko dute sarrera bat NOAUA!ren egoitzan.

Azaroak 11, larunbata
'Kanpora sartzan' antzezlan

Seropositibo baten egunerokotasunean gertatzen diren kontuak azaleratu nahi ditu antzezlan honek.

- 20:00 Sutegin. "
- Zuzendaria: Aitziber Garmendia Mendizabal.

• Aktoreak: Xabin Fernandez Zubeldia eta Intza Alkain Ibar-guren.

• Sarrerak: aldeztatik 8 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA!-ko bazkideek 6 eurotan NOAUA!-ren egoitzan.

Azaroak 12, igandea
'Usurbil borobil erriotan dabil' kontakizuna eta tertulia Ixabel Agirresaroberekin.

Ixabel Agirresarobe Arzallus herrikideak Zubieta, Urdaia-ga (Santuenea eta Txokoalde) eta Aginagako herritarrekin, errioko hainbat kontu eta pasadizo jaso ditu. Ahoz eta zuzenean jasotakoarekin ipuin bat sortu da, "gure herriko errioren ipuin bat.

- 18:00 Sutegin.
- Sarrerak: doan.



Xabin Fernandez eta Intza Alkain, 'Kanpora sartzan' antzezlaneko protagonistak.

Gure Zirkua

Azaroak 10, ostirala:
19:00.

Azaroak 11, larunbata:
16:30/19:00.

Azaroak 12, igandea:
12:00/17:00 (sarrerak agortuak).

Azaroak 17, ostirala:
19:00.

Azaroak 18, larunbata:
16:30 (sarrerak agortuak)/19:00.

Sarrerak: gurezirkua.eus



Ikusgarria da Agerialde eraikineko bigarren solairuak hartu duen itxura. Nerea Erauntzetamurgilek adierazi digunez, "azaroaren 16ko batzar nagusira hurbiltzen direnekin batera bisita gidatu bat egingo dugu".

"Agerialde eraikinean egin ditugun birmoldaketak ezagutuko ditugu batzarrean"

NEREA ERAUNTZETAMURGIL UDARREGI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Azaroaren 16an batzar nagusia dute Udarregi ikastolan. "Modu atsegin batean egingo dugu", Nerea Erauntzetamurgilek adierazi digunez. "Eta zizka-mizkak izango dira bertaratzen direnentzat".

Udarregi ikastolako batzar nagusia azaroaren 16an egingo da Agerialden. Balantzea egiteko garaia heldu da, ezta?

Hori da. Udarrekin beharrean, Agerialdeko eraikinean batuko gara aurten. Eraikineko bigarren solairuan, zehazki esanda. Batzarra arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta ordu t´erdiko iraupena izango du gehienez ere.

Aurten, Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea berritzea tokatzen da. Gainontzean, iazko ikasturteko kudeaketa sozialaren nahiz diru kontuen berri emango da. Ikasturte berriko aurrekontu ekonomikoari buruzko azalpenak ere emango ditugu. Eta

amaieran, horrelakoetan ohiko den bezala, galdera-erantzunen tarte bat zabalduko dugu.

Azpimarratzekoa da tokia. Batzarra Agerialdeko bigarren solairuan egingo da, ez Udaregiko eraikin gorrian.

Aurtengo udan Agerialdeko solairu hori berritu genuen eta bisita gidatu baten bitartez egindako aldaketak arrazoituko ditugu. Txoko ezberdinak ezagutuko ditugu eta espazio berriak zein gure ildo pedagogikoak nola uztartzen diren azalduko dugu. Modu atsegin batean egingo dugu eta mahaia- ren bueltan. Zizka-mizkak izango dira bertaratzen dire-

nentzat eta ikastolako oparien zozketa egingo dugu, bide batez.

Aurtengo batzarreko arlo nabarmenena zein izango da?

Arlo pedagogikoa nabarmendu nahi genuke. Marko peda-

"IKASTOLA DENON ARTEAN EGITEN DUGU; ZENBAT ETA PARTAIDETZA ZABALAGOA ORDUAN ETA IKASTOLA BIZIAGOA IZANGO DUGU"

gogikoari errepassoa ematen hasiak gara eta, bestalde, 'Curriculum Berria' txertatzen ari gara: iaz LH1, 3, 5 eta DBH1, 3 mailetan egin genuen eta aurten LH2, 4, 6 eta DBH2, 4 mailetan ari gara txertatzen.

2015. urtean, Konfiantzaren Pedagogiari ekin genion Haur Hezkuntzan. Ikastolako beste etapetara hedatzeko pausoak ematen ari gara pixkanaka. Egun, LHko lehen 3 mailetan ere txertatuta daukagu eta gainerako etapetan aldaketa batzuk egin ditugu. DBH mailan adibidez, 'Harrera' ekimena jarri dugu martxan, etxetik gelarako egokitze prozesuari garrantzia emateko.

Marko pedagogikoari buruzko hausnarketa hala ere, ez da ikaslegora mugatzen. Langileok eta irakasleok ere badugu zerregina. Horren jakitun garez, Udaregiko klaustro osoak ahalegin berezia egingo du eta formazio ikastaro bat jasoko dugu denok. HUUHEZIREn eskutik, pedagogiaren inguruko lanketa egingo dugu eta horrek gure markoa birdefinitzen lagunduko digu.

Iraganean egindakoa errepassatu eta etorkizuneko planak egiteko balio dute batzar nagusiek. Erabakiak hartzeko gune nagusia ere bada, ezta?

Gure kasuan, batzar nagusiaren helburu nagusiak hauek dira: informazioa partekatzea, zalantzak argitzea, iritziak nahiz proposamenak jaso eta nola ez, erabakiak hartzea. Udarregi ikastola denon artean egiten dugu; zenbat eta partaidetza zabalagoa orduan eta ikastola biziagoa izango dugu. Eta kudeaketa ere, eraginkorragoa litzatekeela iruditzen zait.

Azaroaren 16ko batzarrean joan ala ez joan, zalantzan diren gurasoei zer esango zenieke?

Hasteko, Agerialde eraikinean egindako birmoldaketa ikusteak merezi duela esango nieke. Udan, eraikineko bigarren solairua bere osotasunean eraberritua izan zen. Batzarrean



Pareten orde, atek daude orain Agerialdeko ikasgeletan. Behar denean ireki eta bi gela elkartzeko, edota pasilloa bera gelaren osagarri egiteko. Espazioak balioanitzak dira eta txoko denak dira eskola emateko baliogarri.

→ hain zuzen, solairu horretako txoko desberdinak bisitatzeko aukera izango dugu. Bisita gainera, gidatua izango da; espazioen antolaketa eta diseinua Udarregi ikastolaren pedagogia beharretara egokitu da. Espazio irekiak, gardenak, balioanitzak, integratzaileak, erosoak eta goxoak sortu nahi izan ditugu. Eta balio horietara egokitu dugu Agerialdeko bigarren solairuko espazioa. Bisita gidatua zehar, behar adina azalpen emango dira.

Haurreskolak haur partzuergoko eskolak doan dira orain. Udarregi ikastolako haur eskola ordea, ez dago Haurreskolak partzuergoan. Herri izaerako eskola da Usurbilgoa. Udalak egin duen diru ekarpen bati esker, 2023-24 ikasturteko kuotaren bi heren bere gain hartuko ditu udaletxeak. 2024-2025 ikasturteari begira ere mantendu egingo al da formula hau? Nola daude gauzak une honetan?

Usurbilgo Haur Eskolaren esleipena ere aurten amaitzen da eta, nola ez, aurrera begira jarriak gaude. Datozen hilabeteetan, Haur Eskolaren gaia jorratuko dugu. Horretarako lantalde bat sortu dugu propio Udarregi ikastolaren baitan.

Udalarekin ere harremanetan gaude.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Delegaritzatik behintzat, oraingoz ez dator ezer. Eta honek ziurgabetasun handia dakar, Haur Eskolarentzat zein Udarregi ikastolarentzat.

Duela hilabete edo, Eusko Legebiltzarrean akordio batera iritsi ei ziren, udal izaera duten Haur Eskoletan ere doakotasunerako bidea urratu dadin. Baina ez ziren epeak zehazten. EAEn, 13 bat Haur Eskola daude egoera honetan (tartean, Usurbilgoa).

Egoera ez dirudi oso bidezkoa denik.

Lasarte-Orian eta Orion doakoa da Haur Eskola eta Usurbilen ez. Diskriminazioa agerikoa da.

"ESPazio IREKIAK, GARDENAK, BALIOANITZAK, INTEGRATZAILEAK, EROSOAK ETA GOXOAK SORTU NAHI IZAN DITUGU AGERIALDEN"

Batzuk zein besteek, funtzio berdina betetzen dute denek.

Hori da. Ez zait batere bidezkoa iruditzen.

Bada pil-pilean den beste gai bat ere: Hezkuntza Legea. Iazko udaberrian akordio zabal bat zirudiena, desitxuratuz joan da gutxinaka. Eusko Legebiltzarreko gorabehera hauek nola bizi dituzue hemendik, Udarregi ikastolaren prismatic?

Akordioa erabat desitxuratzen ari da, bai. Hezkuntza Lege egoki bat ateratzea baino garrantzitsuagoak dirudite bi alderdiren interesak, eta lotsagarria iruditzen zait. Honek ere ziurgabetasun egoera batean jartzen gaitu. Eta etorkizuneko egitasmoei begira, eragina handia du, kudeaketa arloan bereziki.

"AZAROAREN 16KO BATZARREAN, AGERIALDEKO BIGARREN SOLAIRUKO TXOKO EZBERDINAK BISITATUKO DITUGU"

Batzar Nagusiko gai zerrenda

Noiz: Azaroak 16 osteguna.

Ordua: 17:30 Lehen deialdia. 18:00 Bigarren deialdia. 18:30 Hirugarren deialdia (18:00etan hasiko da batzarra).

Iraupena: 90 minutu.

Lekua: Agerialdeko bigarren solairuan.

Gai zerrenda

- 1.- Sarrera: ongietorria eta 2022ko Ohiko Batzarraren aktaren onarpena.
- 2.- Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea berritzeko kide aukeraketa.
- 3.- 2023-24 ikasturteko Kudeaketa Plana: ikasturteko erronkak.
- 4.- 2022-23 ikasturteko kudeaketa sozialaren nahiz urteko kontuen onarpena eta emaitzen aplikazioa.
- 5.- 2023-24 ikasturteko aurrekontu ekonomikoaren azalpena eta onarpena.

Batzarrean zehar

- Argazki erakusketa: Ikastolan egiten diren proiektu, lan, ekimen, irteera, ospakizun eta abarrez osatua.
- Bisita gidatua: espazio berrian zehar solairuaren txoko desberdinak ezagutaraziko dira. "Espazioek eta gure pedagogiak bat nola egiten duten azalduko da".
- Mahaiaren bueltan, zizka-mizka.
- Ikastolaren opariaren zozketa.



Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek aste hasieran Donostian eginiko agerraldia. NOAUA!

Osakidetza defendatzeko deia

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek mobilizatze deia egin dute larunbatean, azaroak 11, Usurbildik gertuen Donostian, Bulebarretik 17:00etan "Murrizketarik ez, pribatizaziorik ere ez! Defenda dezagun osasungintza publikoa" aldarripean abiatuko den manifestazioan.

Osasun zerbitzu publikoa ahultzen jarraitzen dutela salatu zuten Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek azaroaren 11rako Gasteizen, Bilbon eta Donostian deitu dituzten manifestazioak aurkezteko aste hasieran haietako mobilizazio baten abiapuntuan, Gipuzkoako hiriburuko Bulebarrean egin zuten agerraldian; Osakidetzak behar duen dirua "osasun pribatuaren poltsikoetara desbideratzen" jarraitzen dutela alegia. Gogorarazi zuten, ordea, "osasuna eskubide bat da eta ezin dugu onartu negozio bihurtzea. Are gutxiago herri administrazioetik negozioa sustatzea eta osasun pribatua eraginkorragoa dela sinestartztea". Nabarmendu zuten, "osasun publikoa da guztiontzako arreta ekitatiboa eta gure

beharren araberakoa berma dezakeen bakarra. Eska dezagun ahalegin publikoek berau indartzea, eta ez interes pribatuaren alde egitea".

Zerbitzuen desegitea

Osakidetzak bizi duen ahuleziageroz eta handiagoa agerian utzi nahi dute, baina oroitarazi zuten, osasun zerbitzu publikoen "degradazioa urrutetik dator eta hori ez da kasualitatea. Arduradun politikoei nahita eta etengabe hondatu dute, garbiketa-zerbitzuak, garbitegia, jantokiak, anbulantziak, dialisia, laborategia eta abar pribatizatuz". Hori aski ez eta salatu zuten, "beste hainbat zerbitzu desegiten jarraitzen dute: larrialdiak, haurren osasun mentala, anatomia patologikoa, elektromedikuntzako tresne-

ria... Eta, gainera, beraiek horri etekina ateratzen diote ate birakarien bidez, Keralty, IMQ, Inviza, Ibermatica, Grant Thornton, LKS, PWC, Deloitte... bezalako enprekin lankidetzan".

Osakidetzak bizi duen testuinguru hau salatzearekin batera, aurrerapauso bat eman nahi dute Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek larunbaterako deitu dituzten manifestazioen bidez. Osaki-

OSAKIDETZAK BIZI DUEN AHULEZIA GEROZ ETA HANDIAGOA DELA UTZI NAHI DUTE AGERIAN

detzaren eredu aldatetarako proposamena aldarrikatzeko baliatu nahi dituzte mobilizazio hauek. "Osasungintza publikorako eskatzen ditugun norabide aldatetarako konponbideak mahai gainean jarri nahi genituzke", diote Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek.

Eredu aldaketa hau gauzatzeko proposamenaren nondik norako nagusiak, aipatu bilguneok duten webgunean kaleratu dituzte manifestu batean. Manifestu horrekin bat egiteko aukera duzue, opaherriplataformak.eus atarian sartuta. 70 eragileek baino gehiagok atxikimendua adierazi diote dagoeneko.

Konponbiderako gakoak

Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen dute eredu aldatzea. "Mugimendu feministak defendatzen duen bezala, gu ere ziur gaude konponbidea zainketa-sistema integral, publiko eta kalitatezkoa ezartzean datzala, bizitzaren etapa guztiak bermatuko dituen, eta hori guztia eragindako administrazio publikoen arteko lankidetzatik sortu behar dela". Bertan, beharrezkotzat jotzen dute "osasuna politika guztietan txertatzea eta gure bizi-baldintzak zehazten dituzten faktoreei heltzea". Horrekin batera, "guztiz publikoa den osasun-sistema bat egituratu behar da, kalitatezko eta bidezko irisgarritasun unibertsala bermatuko duena". Pribatizazio guztiak geldiarazi eta egoera "lehengoratzeko eskatzen dugu", baita "bateraezintasun medikoa berreskuratu eta indartzea", baliabide publikoak hobeto aprobetxatzearekin batera. Kudeaketa gardena eta demokratikoa galdegiten dute, herritarren parte hartzea eta kontrola bermatuko duena eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen. Helburuok betetzeko ezinbestekotzat jotzen dute Lehen Mailako Arreta indartzea.



Azaroaren 1eko 27. Artisau Azokan askotariko ekoizleak batu ziren. NOAUA!



Artisau berriak erakarri zituen Aitzaga elkartearen ekimenak. NOAUA!



Euskal Herriko nahiz gertuko artisauak batu zituen azokak. NOAUA!



Osteratxoa egin eta erosketak egiteko baliatu zuten hitzordua bisitariek. NOAUA!



Herriko artisauak txoko propioa izan zuten azokan. NOAUA!



Herriko talogile eta gaztaingileak jo eta su lanean Artisau Azokan. NOAUA!



Udarregiko ikasleek gozogintzako postu ederra atondu zuten. NOAUA!



Antolakuntzak (Aitzagak) ere postua izan zuen Artisau Azokan. NOAUA!



Urriko kantu-jirara belaunaldi berria batu zen abestera. NOAUA!



Gure Zirkua seigarren bira agurtzen ari da asteotan Urbilen. NOAUA!



Ziortzaren jardunari aitortza, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioan. NOAUA!



Ziortzak girotu zuen "Urteak bete, abenturak bizi!" emanaldi amaiera. NOAUA!



Milesker Ziortzakoei, 400 laguneko saioa antolatzen laguntzeagatik. NOAUA!



Haien 50. urtemugagatik Zuberoako ikastolak zoriondu zituzten. NOAUA!



Nafartarrak taldekoek Sutegin antolaturiko jardunaldi eguna. NOAUA!



"Krutwig. Bere mendeurrenean berrirakurtzen" liburuen aurkezpena. NOAUA!



Munduko jolasekin ekin zioten azaroaren 4ko Mundualdiari. NOAUA!



Senegalgo Ndank-Ndank taldekoen emanaldia Mundualdian. NOAUA!



Sorterri ezberdinetako herrikideek jaki goxo askoak sukaldatu zituzten. NOAUA!



Gogoz hartu zuten Mundualdiko jaki dastaketa. NOAUA!



Pakistandarrak izan ziren postu propioa izan zuten herrikide batzuk. NOAUA!



Mimo handiz prestatu zituzten Mundualdirako jakiak. NOAUA!



Tokian tokiko elikagaiak dastagai, azaroaren 4ko Mundualdian. NOAUA!



Hartuemanak sendotzeko balio izan zuen Mundualdiak. NOAUA!



Aniztasun Kontseiluko kideek Mundualdian egin zuten agerraldia. NOAUA

"HarEman", Usurbil harrera herria izateko

Sorterrien Usurbil jaialdian bilakatu zuen Mundualdiak azaroaren 4an. Herri honek duen jatorri aniztasuna plazaraturiko Aniztasun Kontseiluaren ekimenean, udalerrri hau harrera herri izateko bidean, egitasmo berri bat aurkeztu zuten; "HarEman".

Jatorri aniztasuna plazaratzea, elkar hobeto ezagutu, harreman- eta bestelako kolektibitate bat eraikitzen segitzea. Usurbil harrera herri izatea, hortxe iragan azaroaren 4ko Mundualdiaren hasieran Aniztasun Kontseiluak egindako ekitaldian marraztu zuten etorkizunera begirako erronka. Bide horretan, hainbat urrats eman dituzte, alkate Agurtzane Solaberrietak azaldu zuenez. Harrera eredua "diseinatzen eta egituratzen aritu gara" bi dimentsiotan; udal barruan eta komunitateari begira. Batetik, "Udaletik aktibatu beharreko baliabideak sortzen aritu gara". Hiru aipatu zituen alkateak; batetik, ekainean martxan jarri eta ordutik sorterri ezberdinetako 25 lagunek baliatu duten harrera zerbitzua. Herrian errol-

datua egon edo ez dagoenari ere zuzendua dago, "ez da soilik hona bizitzera datorrenari harrera egiteko, baita herrian kokatzen laguntzeko ere". Zerbitzu hau baliatzeko udal-letzeko harreraren aurrez hitzordua eskatu besterik ez dago.

Lau hizkuntzatan

Horrez gain, baliabideen gida ere prestatu dute. "Helburua argia da. Toki berrietara moldatzeak dakarren zailtasuna erraztu ahal izatea eta herri honek eskaintzen dituen aukeren eta baliabideen berri ematea". Lau hizkuntzatan argitaratu dute; euskaraz eta gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz. Hiztegitxo bat ere gure artera datozenen esku jarriko dute, "euskara gaitasunik gabe datozenen euskarazko oina-

rizko hitzak ezagutu eta barneratu ditzaten". Horrekin batera, udal ordezkariak, eragileak eta sorterri ezberdinetako herriarrak kide dituen Aniztasun Kontseilua osatua zuten iaz, besteak beste, Mundualdiaren sustatzaile lanak egiten dituenena. "Azken hilabete hauetan etorri berriei egiten diegun harrera eta herri protokolo integral bat osatzen aritu gara, Usurbil benetako harrera

"KOMUNITATEAK PROZESU HORRETAN ZEREGINA ETA ZERESANA IZANGO DU"

herri izateko". Iragan ostegunean egin zuten udalbatza aretoan, gure artera bizitzera datozenekin aurrerantzean urtean bitan egin asmo duten harrera ekitaldia.

"HarEman"

Halere, alkateak oroitarazi zuenez, "Udalak egin dezakeena asko da, baina harreraren ez da aski. Komunitateak prozesu horretan zeregina eta zeresana izango du". Tes-tuiguru horretan kokatu zuten, aurtengo Mundualdian aurkeztu eta jakiak dastatzeko eremuan kokaturiko informazio eta aholkularitza postua, aurrerago xehetasun gehiagorekin aurkeztu asmo dutena; "HarEman" proiektua. Kontzeptuak berak argi dio, harremanetik dator izena, lotura hauetan ematen den hartze eta emate prozesuetatik, hartuemanetik alegia. Gizarte mentoria programa berria da Udalak Zabalduz kooperatibarekin batera abiaraziko duena. "Zure harreman sarea zabaldu nahi duzu, Usurbil hobeto ezagutu eta herriaren parte gero eta gehiago zarela sentitu? Usurbil harrera herria izaten lagundu nahi duzu?", erantzuna baiezkoa bada iragan larunbateko Mundualdian aurkeztu zuten proiektu honetan parte hartzera animatzen dute.

"Usurbil denon herri izatea"

Helburua, konfiantzazko eta hurbileko harremanak eraikitzea da Usurbilera datozen herrikideen eta bertan bizi direnen artean, elkar ezagutzaren bidez. "Ideia, hartu eta ematea da", harreman guztietan bezala. Hartueman hauek sortzeko, eraikitzeko zubilana Zabalduz kooperatibak eta Usurbilgo Udalak egingo dute. "Asmoa boluntarioki Usurbilen errotutakoak eta hona bizitzera datozenak elkarrekin aisialdi tartea, zaletasunak partekatzea da", azaldu zuten Zabalduz kooperatibako ordezkariak Mun-

—> dualdiari hasiera eman zion ekitaldian.

Benetako elkarbizitza sustatzea da helburua. "Espazio berean bizi gara denok, baina ez gara elkarbizitzen. Proiektu honek Usurbil denon herria izatea, denon artean eraikitzea" nahi du. Izan ere, "etxean bezala sentiarazi gaituen gure sorterritik beste herri batera goazenean, bertan ere etxean bezala sentitu nahi dugu, herriaren parte izan, ezagutu nahi gaituztela sentiarazi". Herri horretan aurrez bizi direnen artean ere "gurekin ondo sentiaraztea, gure herriaren parte izatea, geure hizkuntza, ohiturak, partekatzea" nahi izaten dugu. Hortxe, beraz, hau guztia bideratuko duen egitasmo berria; "HarEman" izenekoa.

Guztion aterpe

Hartuemanetarako aukera ezinhobearen izan zen hain zuzen, Mundualdi egunean, sorterri ezberdinetako herrikideek prestaturiko jakien dastaketa arrakastatsuan. Pakistan, Galiza, Mauritania, Nigeria, Nikaragua, Sahara, Venezuela, Kuba... Herrialde hauetan guztietan barneratzeak aukera izan genuen tokian tokiko zapo ederren bidetik, frontoitik mugitu ere egin gabe. Sorterri ezberdinetako herrikideek mimo handiz prestaturiko haien jakiak dastagai jarri zizkiguten. Ohi bezala, gastronomiaren bidez, hartueman ederra sortu zen herrikideen artean, jaioterria edozein dela ere bateko zein besteko herrikideak ezagutu eta harremanak sendotzea sustatzen duen jaialdian. "Gaur plaza honek Usurbilen bizi dugun jatorri eta kultura aniztasuna islatzen du. Elkar ezagutzen eta elkar topatzen jarraitzeko aukera paregabea eskaintzen digu gaurko jaialdia. Izan ere, Mundualdiak azken batean, guztion aterpe izan nahi baitu, guztion topagune", alkatearen esanetan. Ekimen honek bere esanetan,



Munduko jolasekin ekin zioten Mundualdiari. Irudian, parte hartzaileek atera zuten talde argazkia. NOAUA!

"edozein izanda ere sorterria, Usurbilen bizi diren pertsona guztien berdintasuna" aldarrikatu nahi du, elkarbizitza eremuak sortu, herrikideen jatorria geroz eta anitzagoa den garaiotan.

Datu esanguratsu bat plazaratu zuen alkateak. Urte hasieran udalerri honek 6.387 biztanle zituen. Haietatik %18,4 Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira.

Nabarmen eraldatzen doan egun bizi dugun testuinguru honen harira, Agurtzane Solaberrieta alkateak zioenez, jarri dute martxan azken urteotan "jatorri aniztasuna eta bizikidetzatza" lan-ildoak. "Ezinez bestekoa da etorkizunera begirako oinarri sendoak ezartzea, gure herriak duen jatorri, identitate eta kultura aniztasuna onartu ez-ezik balioan jartzeko eta bizikidetzatza elementu bihurtzeko".

"PLAZA HONEK USURBILEN BIZI DUGUN JATORRI ETA KULTURA ANIZTASUNA ISLATZEN DU"

Jolas kooperatiboak

Azaroaren 4ko Mundualdia goizean hasi zuten frontoian jolasean. Munduko jolasak frontoira ekarri zituzten eta hala, herrialde ezberdinetan barrena bidaiatzeko aukera izan zuten hitzorduan parte hartu zuten haur, gazte eta helduek, pilotalekutik mugitu ere egin gabe. Zirimarako eta Gaztelekuko kideek nahiz aisialdiko begirale izateko ikastaroa egiten ari direnek lanikidetzan antolaturiko familia giroko plan ederra antolatu zuten larunbat goiz euritsuan. Munduko herrialde ezberdinetan ezagunak dituzten jokoak moldaketekin frontoira ekarri nahi izan zituzten. Kooperazioa, talde lana sustatu nahi izan zuten hitzordu honetan. Txinatik ekarri zuten herensugearen jolasarekin esaterako. Ilaran jarri zen talde bat, heldu eta haurrak es-

"MUNDUALDIAK AZKEN BATEAN GUZTION ATERPE IZAN NAHI DU, GUZTION TOPAGUNE"

kutik helduta, herensegurearen forman. Buruak isatsa harrapatu behar zuten. "Erraza dirudien arren, kooperazio lanean oinarritutako jolasa da. Azkenean, denek lortu behar dute burua eta isatsa babestea".

Behaketa lanetik

Zer nolako jolasak plazaratu erabakitzeak, begirale izateko ikastaroko parte hartzaileek ikerketa lana egin zuten aurretik. Hala, Venezuela, aipaturiko Txina, Afganistan, Nigeria... herrialde guztietan aritu ziren arakatzeko lanetan, jolas ezberdinen bila. "Herrialde ezberdinak bilatu zituzten eta interesgarriak zein dibertigarriak iruditu zitzaizkien jolasetatik abiatu ginen". Lanketa honetan biltzen joan ziren informazioarekin harritu ziren, "jolas asko hemen ezagunak ditugu". Mundualdirako hainbat egokitzapen txertatu zituzten joko hauetan. Baliagarria iruditu zitzaizkien esperientzia aisialdiko begirale izateko Usurbilen abian den ikastaroko partaideei. Hamabost ikasleko taldeak bigarren saioa zuen azaroaren 4an. "Aukera ona izan dugu ikasitakoa praktikan jarri, zer hobetua dagoen ikusi eta ikasturteko erronkak bideratzeko".



Ander Izagirre *Vuelta al país de Elcano* liburuaz arituko da azaroaren 21ean Sutegi udal liburutegian. LIBROS DEL KO

"Elkano bera baino, Elkanoren ingurunea interesatzen zait niri"

ANDER IZAGIRRE KAZETARIA ETA IDAZLEA

Vuelta al país de Elcano liburuarekin Euskadi Saria eskuratu berri du. Azaroaren 21ean udal liburutegiak antolatutako solasaldian izango da. Liburuaren aleak Sutegin dituzue eskuragarri.

Magallanesez eta Elkanok lehen mundu bira osatu zuten duela bost mende. Zuk euskal lurraldean barrena osatu duzue zure 'mundu bira' partikularra, bizikleta lagun. Eta jasotakoak eta hausnartutakoak batu dituzue kronika liburu honetan. Hortaz, duela bostehun urtekoak nahiz gaur egungoak txirikordatu dituzue. Zure lana osatzerakoan, Elkanoren figura aitzakia bat baino ez da izan ala hori esatea gehiegitxo esatea al da?

Bai, hala da. Elkanoren figura aitzakia bat da liburu honetan. Lehen mundu biraren bosgarren mendeurrenean, Elcano Fundazioaren enkarigu bat jaso nuen, eta nik kazetari lan bat eskaini nien.

Atzerrian egin izan dudana –Bolivian edota Groenlandian–, etxean egin nahi nuen honakoan: bertako jendearekin hitz egin, historia irakurri, herria ezagutu, paisaiak ibili... Hori nire etxean egin nahi nuen, Euskal Herrian. *Vuelta al país de Elcano* Getarian hasi eta Getarian amaitzen da; bidaia honek orain bostehun urteko lehen mundu biraren historiari oihartzun egiten diolako.

Hortaz, zure ahalegina ez da Elkano eta Elkanoren garaira mugatzen.

Elkano pertsonaia interesgarria da, gutxi dakigulako eta bere inguruan bakoitzak nahi

duen kontakizuna sortzen duelako, baina niri batez ere Elkanoren ingurunea interesatzen zait. Elkanoren herria interesatzen zait. Non jaio

"EUSKALDUNAK ASPALDITIK EGON DIRA MUNDUKO KULTURA ASKOREKIN HARREMANETAN, ETA HORREN OIHARTZUNA ERE JASO NAHI NUEN LIBURUAN"

zen, nolako zen Getaria eta euskal kostalde hura orain 500 urte. Eta uste baino bidaiariagoa, irekiagoa eta globalagoa zen. Euskaldunak oso aspalditik egon dira munduko kultura askorekin harremanetan, eta horren oihartzuna ere ekarri nahi nuen liburura. Ez hori bakarrik. XXI. mendeko gure kezkek ere batu nahi nituen. Gaur egun, zeintzuk diren gure esplorazioak, gure bidaiak, gure ikerketak, gure kezkek, gure meritu eta pekatuak... Hori ere aztertu nahi nuen. Kontrastelana egiteko garaian, Elkanoren bidaia askotan erabiltzen dut liburua: nolakoak ziren orduan, nolakoak garen gaur.

Maria Jesus Pando, Iñigo Marauri, Maria Pilar Rodriguez, Maria Gorosarri eta Mikel Reparaz, zure gremioko profesionalak osatutako epaimahaiak hautatu du zure liburua. Hau horrela izanik, are pozgarriagoa izango da sari bat eskuratzea, ezta?

Horrek poza handia ematen du, noski. Nik kazetaritza liburuak idazten ditut eta saia-kera etiketarekin kazetaritza lanak ere kontuan hartzea estimatzekoa iruditzen zait. *Potosí* liburuarengatik ere Euskadi Saria eman zidaten 2017an eta, kasu hartan, kronika liburu bat izan zen. Oso urrun egina, munduaren beste puntan idatzia.

Vuelta al país de Elcano liburu berriz, Euskal Herrian egina izan da. Eta poza bikoitza da. Argi geratu delako lan bat oso interesgarria izan daitekeela etxetik oso urruti edota etxean bertan idatzi izan bada. Aitorpen hau jasotzeak mezu hori indartzen du. Istoria on bat topatzea da inportantea, eta ez zenbat kilometrorra idatzia izan den.

Potosí (2017) eta *Vuelta al país de Elcano* (2023) oso liburu ezberdinak dira baina lan egiteko modua oso antzekoa izan da bietan. Kazetari

ezjakin bat naiz gai batera hurbiltzen naizenean, eta oso argi daukat adituekin eta bizitza esperientzia interesantea izan duen jendearekin hitz egin behar dudala. Kasu honetan, izan zitezkeen historialariak, arkeologoak, sukaldariak, Ondarroako arrantzale afrikarrak edota Baionako idazle bat. Euskal Herriko panorama erakusteko balioak izan zaizkit denak.

Elkanoren mundu biraren bosgarren mendeurrenaren harira, polemika piztu zen beste behin ere. Eta horrelakoetan, logika binarioa gailentzen da eztabaida publikoan. Elkanoren aldekoak vs. Elkanoren kontrakoak. Zaila da hortik eskapatzea. Zuk ordea, pertsonaiatik haratago joan nahi izan duzu. Elkanori izkin egin gabe, orduko zein egungo gizartean erreparatu nahi izan duzula esan daiteke.

Elkanoren alde, Elkanoren kontra, eztabaida horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Batzuetan ordea, oso manikeoak gara eta hor ez dago interesgarria zaidan ezer. Bakoitzak bere postura ideologikoa indartu nahi duenean, historia komenizaion moduan bihurritzen du, eta hori ez zait interesatzen.

Kazetari bezala, nire kezketako bat da konplikazioaren alde egitea. Bizitza oso konplikatu da eta ezin dira oso azalpen eskematikoak eman errealitatea ulertarazteko garaian. Kazetariok tematiak behar dugu izan: "Seguru al zaude hori benetan hain sinplea izan zela?", "Euskaldunen historia hain erraza da kontatzen?", "Euskarak eta euskal kulturak hemen isolatuta bizi izan garelako irauin dute gaur arte? Seguru hori benetan horrela izan zela?"... Historia arakatzen hasten zarenean, baieztapen batzuk ez dira hain argi azaltzen.

Atzera begira jartzen garenean gainera, topikoak eta mitoak sartzen dira jokoan.



"Bizitza oso konplikatu da eta ezin dira oso azalpen eskematikoak eman errealitatea ulertarazteko garaian". ELKANO FUNDAZIOA.

Bai, eta topiko zein mito batzuei buelta ematea ere interesgarria dela deritzot, eta nik buelta eman nahi nien topikoei eta mitoei. Izenburuko 'vuelta' horrekin, itzuli geografiko eta historiko bat egin nahi nuen. Baina itzuli mental bat ere eman nahi nion gaiari. Buelta eta buelta eman tortillari. Eztabaidarako eta jo-

laserako ere bai, zeren batzuetan solemneegi jartzen gara eta gehiegi haserretzen gara.

Sari honek bultzada berri bat emango dio liburuari ala sariak ez du halako bultzadarik ekartzen berarekin? Potosí lanarengatik ere saritua izan zinen duela sei urte. Ordukoan, liburuak bigarren

"BAKOITZAK BERE POSTURA IDEOLOGIKOA INDARTU NAHI DUENEAN, HISTORIA KOMENI ZAION MODUAN BIHURRITZEN DU, ETA HORI EZ ZAIT INTERESATZEN"

"TOPIKO ZEIN MITO BATZUEI BUELTA EMATEA INTERESGARRIA DELA DERITZOT, ETA NIK BUELTA EMAN NAHI NIEN ELKANOREN GAINEKO TOPIKOEI ETA MITOEI"

bizitza bat izan al zuen saria jaso eta gero?

Ez dut zalantzarik. Potosí liburuarekin ere ikusi nuen. Hura ez zen oso liburu komertziala, eta saria jaso zue nerako bere ibilbidea egin zuen. Baina Euskadi Saria jaso eta gero, salmenta areagotu egin zen eta hirugarren edizio bat plazaratu zuen argitaletxeak, kapitulu berri batekin plazaratu ere. Hazten jarraitu zuen liburu bat izan zen.

Vuelta al país de Elcano liburuaren bigarren edizioa ere agortzean da, eta oraintsu esan didate Euskadi Sariari esker hirugarren edizio bat plazaratuko dutela. Beraz, argi daukat. Sariak bizitza berri bat emango dio argitalpenari.

Liburu gehiago saltzeaz gain, hedabideek gehiago erreparatu dutelako liburuan eta irakurle taldeetatik ere hainbat gonbidapen jaso ditudalako. Usurbilgo solasaldia adibidez, aldezturik hitzartua genuen baina saria jaso eta gero beste irakurle talde batzuetara joateko deia jaso dut.

Usurbilgo udal liburutegian mimos prestatzen dituzte solasaldiak eta irakurleek denbora askorekin izaten dute liburu eskuratu eta irakurtzeko aukera. Maiz aritzen zara irakurle taldeetan? Hala bada, gustura parte hartzen al duzu halakoetan?

Maiz egiten ditut eta nik asko eskertzen ditut. Batez ere irakurle jendea hurbiltzen denean. Oso deigarria egiten zait, oso solasaldi ezberdinak sortu daitezkeelako batean edo bestean. Kontuan izan liburu hau puzzle handi bat dela, mila pieza dituelako, eta zeinek helduko dion zein piezari, horrek asko baldintzatu du solasaldia eta bide batetik edo bestetik eramango du. Ezin dut jakin nondik joango den Usurbilgoa baina hori ere polita da, eta aberasgarria.



Azaroaren 30eko greba feminista orokorra prestatzeko, azaroaren 3an bilera egin zuten Potxoenean. NOAUA!

Greba feminista orokorrera begira

Azken bi urteotan lanketa esparrua azaleratu, aliantzak gehitu eta denona den zaintza eskubide kolektiboaren alde ate joka den greba feminista orokorra prestatzeko herri asanblada egin zuten iragan azaroaren 3an Potxoenean.

Deialdihonen nondik norakoak azaltzeaz gain, taldeka greba hau nolairudikatu, baliabideez edota deialdi honen sozializazioaz ekarpenak biltzen aritu ziren iragan ostiraleko Potxoeneako bileran. Grebara begira, zehazte bidean dituzten zenbait ekimen antolatzen dira. Hurrengo asteotan emango dute horren guztiaren berri.

Bizitza erdigunean

Azaroaren 30eko greba eguna, lanuzteko eguna izango da, orokorra eta feminista. Ezagarrion buruzko azalpenak eskaini zituzten Potxoeneko hitzorduan. Egun horretan, Euskal Herriko Mugimendu Feministak herri eragile gehiagorekin azken bi urteotan eginiko lanketa prozesua azaleratu nahi du. Prozesu horren

ispilu da urria hasieran Herri Akordioa. Ildo horretan, eragile ezberdinen arteko saretze bidean sakondu nahi dute eta greba mugari garrantzitsua izango da, izaera orokorrekoa.

Lanuzte orokorrerako deia egingo da hilaren 30ean nahiz eta aipatu bilkuran nabarmendu zuten moduan, egun horretan denek ez duten izango greba eskubidea bermatua. Hain zuzen, zaintza lanez arduratzen direnek ezingo dute haien jarduna eten. Horregatik, greba egun honen indarra baliatu nahi dute zaintza lanak nortzuk eta zer baldintzetan egiten dituzten ikusarazteko. Zereginotan dihardutenen lan baldintzak eta, orohar, bizitza bera erdigunean jarri eta duindu nahi dute. "Grebaren muina, sistema publiko komuni-

tarioaren lehen harriak finkatzea izango da. Sistema duina aldarrikatzea".

Feminismotik

Grebak, gainera, izaera feminista izango du, egungo sistema heteropatriarkal edota koloniala salatuko du. Zaintza lanen pribatizazioaren arduradunak seinalatu nahi dituzte eta zaintzaileek aliatu behar dituzten sindikatuen eta gainerako eragileen borroka hau bereganatzeko baliatu nahi dute greba eguna. Ildo horre-

"DENON ARDURA IZANGO DA PROZESU HORRETAN PARTE HARTZEA"

tan, lanuzte orokorra iragarri du mugimendu feministak azaroaren 30ean, zaintza eskubide kolektiboak denoi eragiten baitigu. "Denon ardura izango da prozesu horretan parte hartzea", nabarmendu zuten iragan ostiraleko bilerako deitzaileek. Argi dute, prozesuaren lidergoa mugimendu feministarena izango da, "feminismotik erai ki nahi dugu" ziotenez, lerro-tan mintzagai dugun eskubide kolektiboa.

Orain arteko lanketa esparru ez mistotik mistora igarotzea erabaki dute, etenik gabe aliantzen sarea zabaltzeko bidean. Aurrera begirakoa, beraz, "prozesu mistoa izango da". Berau kudeatzerakoan, iragan aste-ko bileran azaldu zuten moduan, zapaldu eta zapaltzaileak prozesu berean elkartzea eragingo duenez, ezinbestekoa izango da etengabe prozesua bera errebisatzea, baita nork bere prozesuaz hausnartzea ere.

Herri akordioa

Aipatu moduan, azaroaren 30eko grebaren atarian zaintza eskubide kolektiboaren bueltako Herri Akordioa aurkeztu zuten duela hilabete, horren alde lanean aritu diren herri eragileek, zaintza lanen "egungo antolamendu soziala" eraldatzeko. "Zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; hau da, pertsona guztiek, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaintzeko eta jasotzeko duten eskubidearen alde egin nahi dugu". Bi esparrutan lan egin asmo dute. Epe motzera begira, egun dauden premia urgenteei erantzun nahi die, "hau da, egun, prekarioen eta kolapsatuen dauden egoerei aurre egitea. Bestetik, epe luzera begiratzea eta bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial bat imajinatzea eta definitzea, sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gaindituko dituen".



"20 urtez Xiberoko Ikastolan alde elkartasuna hedatzen!" lemapean iragarri dute aurtengo kanpaina. Honakoan ere, hiru saski ezberdin prestatu dituzte. Eskaerak egiteko epea zabaldu berri da.

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak salgai

Azaroaren 26an itxiko da eskaerak egiteko epea eta bi modutara egin daiteke: ikaskoli.eus web orrialdearen bitartez edo NOAUA Kultur Elkartera hurbilduz.

Nafartarrak taldearen eskutik gure artera iritsi den kanpaina honek helburu argi bat du: Zuberoan kokatuta dauden ikastolak diruz laguntzea.

Ipar Euskal Herrian euskarak ez du babes ofizialik. "Euskara hizkuntza gutxiagotua gelditzen da gure lurraldean. Euskararen etxeko transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek dute euskararen transmisioa bermatzen".

Laguntza oro ezinbestekoa da. Saski hauetako bat erosiz, kalitate handiko elikagaiak eskuratuko ditugu eta gure alea jarriko dugu Zuberoako bi ikastola hauek zutik iraun dezaten.

20 urteko ibilbidea

Duela 20 urte hasi ziren saskiak saltzen. "2003. urteaz geroztik, Xiberokoan kokatuak diren 2

ikastolek (Alozekoa Basaburuan 32 haurrekilan, eta Epe-rra Pettarrean 73 haurrekilan) tokiko mozkinekin osaturiko saskiak salgai ezartzen ditugu gabonetarako", prentsa-ohar bidez jakinarazi dutenez.

2.200 saski saldu zituzten iaz Kanpainak hortaz, bi onuradun nagusi ditu: Zuberoako ikastolak eta Zuberoako ekoizle txikiak. "Balorapena egiteko unean, pozik agertzen gira", diote. Iaz prezioak igo behar

"SASKIA OSATZEN DUTEN OSAGIAK, PRODUKZIO TTIPIKO EKOIZLEENAK DIRA"

izan zituzten eta, hala ere, 2.200 saski saldu zituzten. "Aurten, iragan urteko aldaketak egonkortzea dugu xede, eta hiru saski berdinekin jarraitzea erabaki dugu".

Elikagaiak, kalitate handikoak

Kanpaina honen sustatzaileen esanetan, "saskia osatzen duten osagai guztiak, produkzio ttipiko ekoizleenak dira. Kalitate handikoak, bertan ekoiztu mozkinak eskaintzen dituztenak".

Azaroaren 25ean, ospakizuna Usurbilen

Zuberoako ikastolen mugimenduak 50 urte beteko ditu aurten. "Usurbildik haiekin bereziki harremana dauka-gunok beraiekin ospatu nahi

dugu urteurren borobil hau", Nafartarrek aditzera eman digutenez. Egitarau hau prest dute:

- 11:30 Udarregi ikastolan ongi-etorria eta harrera Zuberoako ordezkarietara.
- 12:00 Kale-jira herrian zehar Kantu-jirakoekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 18:00 Musika, dantza eta kantu emanaldia Sutegiko auditoriumean. Partehartzai-leak: Mixel Etxekopar eta Jean Kristian Galtzetaburu, herriko bertsolariak, Udarregi ikastola eta Orbeldi dantza taldea.
- Sarrera: 5 euro (egunean bertan edo aurrez, Lizardin).
- Antolatzaileak: Nafartarrak Kultur Elkartea, Kantu Taldea eta Orbeldi Dantza Taldea.

Hiru saski, aukeran

Pettarra (50 euro)

Ahate gibel berrosatua, ezitia, ardi gazta kilo, bixkotx gaztatua, pastak.

Arbaila (57 euro)

Eztia, bixkotx artisanalak, kilo erdiko bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximena, tisanak, pastak.

Basabürüa (68 euro)

Xerri pate, bixkotx artisanalak, ardi gazta kg., xahalki axoa, lukainka idorra, pastak.

Epea, azaroak 26

Azaroaren 26an amaituko da eskaerak egiteko epea. NOAUA Kultur Elkartearen egoitzan eska daiteke, edo online, ikaskoli.eus web orrialdean.

Banaketa abenduaren 15ean hasiko da eta NOAUAko egoitzan jaso ahal izango da saskia.

Usurbildarrak Europako Dardo Txapelketan



Usurbildarrek bosgarren postuan amaitu zuten.

Asteburuan Andorran jokatu den dardo Europako Txapelketan parte hartu du amateur mailan Usurbilgo ordezkariak; Aitzaga eta Xarma tabernetako taldeek.

Haiez gain, "Yolanda Fernandezek eta Joseba Unanuek epaile gisa jardun dute". Unanuek NOAUA!ri berri eman dionez, bosgarren postuan sailkatu dira usurbildarrak Andorran.

TOP8an

"Aitzaga eta Xarma tabernetako jokalariek bikain jokatu dute eta TOP8an sailkatu dira 128 talderen artean". Emaitza hauekin, oso pozik daudela azaldu digu Imanol Vitoricak, eta datorren txapelketan parte hartzeko gogoz daudela. "Datorren urtean Zaragozan ospatuko da Europako Txapelketa eta dagoeneko prestatzen hasiak gara".

Aizkolarien arteko lehia bizia Saizarren

Herri kirolen erakustaldi eta lehiatoki bizia izan zen azaroaren 4an, Saizar sagardotegi ataria.

Aizkolarien Urrezko Kopako bigarren kanporaketa saioa jokatu zuten Iker Vicentek, Jokin Urretabizkaia "Basozabal"ek, Joxean Etxeberriak, Julen Gabirondok, Oihan Larretxeak eta Xabier Zalduak. Harrijasotze erakustaldiek tartekatatu zituzten aizkolarien arteko neurketak.



Urrezko Kopako bigarren kanporaketa jokatu zen sagardotegiaren atarian.

Eskubaloitako partidak

Azaroak 11, larunbata

Oiardo kiroldegian:

10:00 Infantil mutilak:

- Usurbil KE B
- Moyua Homes Bidasoa Irun

13:15 Jubenil neskek:

- Usurbil KE
- C.D.B Leizaran

15:45 Kadete mutilak:

- Usurbil KE
- Taosa Pulpo EK

17:30 Senior mutilak:

- Usurbil KE
- Alkar Taberna Corazonistas

19:30 Senior neskek:

- Usurbil KE
- Zuhagan Orio Eragin

Azaroak 12, igandea

Oiardo kiroldegian:

11:00 Infantil neskek:

- Usurbil KE A
- Mail Boxes Zarautz ZKE

Pilota partidak

Azaroak 11, larunbata

9:30ean Aginagan:

Gipuzkoako txapelketa

1. Mailan, binaka

gomazko paleta:

- Pagazpe (Errasti-Salegi)
- Azkoitia

Azaroak 11, larunbata

11:30ean, Usurbilen:

Gipuzkoako errendimendu

txapelketa eskuz banaka,

infantilak:

- Pagazpe (Ugarte)
- Zazpi Itturri

- Pagazpe (Alejo E.)

Alde Zaharra

Futbola Haranen

Azaroak 11, larunbata

Harane futbol zelaian:

• 09:00 Infantil mutilak:

Usurbil FT-Sporting de Herrera

• 10:30 Infantil neskek:

Usurbil FT-Urnieta CD

• 12:00 Kadete neskek:

Usurbil FT-Ostadar Saiarre KT

• 15:30 Jubenilak:

Usurbil FT B-Hernani CD C

• 17:45 Preferente neskek:

Usurbil FT-Antigua Luberri

Haranetik kanpo:

• 12:10 Kadete neskek,

Donostiako Cesar Beniton:

Intxaurdi KE B-Usurbil FT B

• 15:30 Jubenil preferenteak,

Irungo Artian:

Behobia CD-Usurbil FT

Azaroak 12, igandea

Harane futbol zelaian:

• 11:00 Kadete mutilak:

Usurbil FT-Kostkas Mariaren

Bihotza CD D

• 16:30 Erregionalak:

Usurbil FT-Ostadar SKT B

Haranetik kanpo:

• 10:15 Kadete mutilak, Herreran:

Sporting de Herrera-Usurbil FT B

• 14:00 Infantil mutilak,

Errenteriako Beraunen:

Orereta Kafea FC-Usurbil FT B

• 18:30 Preferente mutilak,

Donostiako Cesar Beniton:

Lengokoak SD-Usurbil FT

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba

Urtarrilaren 28ko BTT proba-rako izen-ematea ireki du antolakuntzak kronoak.com atarian. 25 euroren truke, mailot edo askoa eskuratzeko aukera egongo da.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrena 8, USURBIL
943 37 00 08

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

Instagram Facebook

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiarrena 2, 943 36 55 81

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 670410273.

SALGAI

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Harremanetarako: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiarren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez ari-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tzeko prest. Usurbilgoa eta euskalduna. 616273785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. Harremanetarako: 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Orduategian malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest: 611 72 79 74.

BESTELAKOAK

Azaroak 2an Errekatxikin bi giltza topatu ditugu. Galdu badituzu Udaltzainetan utzi ditugu.

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

ZORION AGURRAK



Zorionak Jon! Azaroaren 9an, 9 urte egingo dituzu! Ondo ospatu! Muxu potolo bat aitona, amona, aitatxo eta Olaiaren partez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 09	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 10	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 11	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 12	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 13	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astearte, 14	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 15	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 16	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 17	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 18	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 19	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 10

USURBIL Gari & Maldanbera kontzertuan

NOAUA! Kulturaldia. Sarrerak: aldeaz aurretik 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. NOAUA! K.E.-ko bazkideek 8 eurotan eskuratu ahalko dute sarrera bat kultur elkartearen egoitzan. Antolatzailea: NOAUA!. 22:00etan Sutejin.

LARUNBATA 11

USURBIL "Kanpora sartzen" antzezlan

NOAUA! Kulturaldia. Umorez betetako emanaldi gordina. Sarrerak: aldeaz aurretik 8 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA! K.E.-ko bazkideek 6 eurotan, kultur elkartearen egoitzan. Antolatzailea: NOAUA!. 20:00etan Sutejin.

IGANDEA 12

USURBIL "Usurbil borobil erriean dabil" kontakizuna eta tertulia

NOAUA! Kulturaldia. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak 2023ko sormen diru laguntzetan aurkeztu eta babestutako proiektua. Sarrera doan. Antolatzailea: NOAUA!. 18:00etan Sutejin.



Ikasturte berriko lehen hitzordua izango da larunbat honetakoa.

Usurbilgo Kulturgunera batzeko deia

Ikasturte hasierako hitzordua deitu du Usurbilgo Kulturgunek larunbat honetarako; lehenbizi dinamika bat egingo da Potxoenean eta segidan bazkaria. Bilgunera batzeko deia egin dute. "Gerturatu zaitenez goizeko 10:30ean Potxoenera ikasturte berriari hasiera ematera".

Bileraren ondoren, bazkaria

Goiz parteko bileraren ondoren, "bazkari bat egingo dugu elkar gehiago ezagutzeko", Kulturgunetik aditzera eman dutenez. Bi ekintzetako batera gerturatuko bazara, bidali mezu bat usurbilgokulturgunea@gmail.com helbidera. "Zuen zain egingo gara".

Errigoraren kanpaina amaiera

"Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" kanpainako kaxak eskatzeko azaroaren 9ra arteko tartea duzue. Eskabideak errigora.eus atarian edo NOAUA! Kultur Elkartearen bidera ditzakezue. Kaxa bakarra izango da aukeran aurtengoan.

'Udazken betea' udal liburutegian

Azaroak 9, osteguna

• 17:30 Irakur Jolas Txokoa 3-5 urteko haurrentzat. Laguntzaile batekin etorri beharko dute. Par-taide kopuru mugatua. Izen-ematea Suteji Liburutegian.

Azaroak 15, asteazkena

• 18:15 Irakurketa solasaldia. 8-11/12 urteko eizuzendua. Mintzagai: Marixor liburua. "Yolanda Arrieta idazlea gure artean izango da". Liburua eskuragarri duzue Suteji udal liburutegian. • Sarrera doan.

Azaroak 21, asteartea

• 19:00 "Vuelta al país de Elcano" liburua- ren inguruko hitzaldi-solasaldia Ander Izagirre idazlearen eskutik. Liburua eskuragarri duzue Sutejin.

Azaroak 28, asteartea

• 19:00 "80 amandre" helduentzako ipuin kontaketa saioa Udal Parekidetasun Sailaren eskutik.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA
· MASAJE
TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN
HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33

errigora

10 urte bete-bete

errigora.eus

aek

ikastolenelkartea

Sortzen

Bat egiteko garaia da

50€



urriak 20 azaroak 9

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

noova



ARATZ

zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04



4.000 sari!

Karrorako txanpona, tote bag-a, boligrafoa, bloc-a, koloretazko arkatzak, sudadera, katilua, botila, neze-serra, lanyard-a, mugikorrerako osagarriak, aterkia...

ETORRI URBILERA ETA IRABAZI SARI BAT ASTERO

Parte hartzeko, hurbildu zaitetz gure Urbil Erruletaren stand-era eta erakutsi zure **DOAKO URBIL APP-EKO IDENTIFIKAZIO KODEA**.

Parte hartzeko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera 16:30-20:30. Larunbata 11:30-14:30 eta 16:30-20:30. Pertsona bakoitzeko parte-hartze bakarra. Abenduaren 9ra arte edo izakinak agortu arte.

